

## **PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA**

Mendeetan zehar egon diren gizarte mugimendu eta aldarrikapenak ezin daitezke hatzekin zenbatu. Gizakion eskubideengatik borrokatzeko indarrak ez ditugu inoiz galdu eta gure bizitokia den mundu hau ahalik eta erosoan bilakatzen saiatu gara, ahotsak altxatuz eta berdintasunaren alde oihu eginez.

Oraingo honetan feminismoan murgilduko gara, generoen arteko berdintasuna bilatzen duen mugimenduan: emakumea genero ahula izateari uzteko etengabeko lanean dabilena besteak beste.

Gu Naiara, Nerea, Libe eta Miriam gara eta “Oihu” proiektua aurkeztera gatoz. Hau hasiera batean Euskal Herriko emakumeei bereziki zuzendua egongo den zerbitzu aske bat izango da, zeina markatzeko erraza den telefono zenbaki batean datzan: “888”. Dohainik den zenbaki honetara deitzen duenak bi arrazoi desberdin izan ditzake: bata, konpainia etxerako bidean, hau da, konbertsazio bat mantendu nahi izatea segurtasuna sentitzeko; eta bestea, norbait (erasotzaile bat) atzetik duelaren ziur edo ia ziur dagoenean. Bigarren kasu honetan, bezeroak kodea esan (edozein koloreren izena) eta telefonoaren bestaldean dagoen langilea berehala jarriko da harremanetan poliziarekin.

Askorentzat bortxaketarik gabeko mundua ideia utopikoa da, baina “Oihuk” hau egia bihurtu nahi du, eta bizi garen gizarte honetan justizia egin. Badakigu biolentziarik gabeko gizarte bat lortzeko giltza hezkuntzan dagoela, baina alde horretatik guk gutxi egin dezakegunez, hau sahiesten duen zerbitzu bat sortzea erabaki dugu; momentuz emakumeen segurtasuna ahalbidetuko duena.

“Oihuren” logoa sortzeaz gu geu arduratu gara, eta irudi abstraktu baten bitartez proiektuak errepresentatzen duen guztia adierazi dugu. Feminismoaren kolore morea da oinarria eta bat egiten duten bi irudik konposatzen dute: emakumearen ikurrak eta barnean kokatutako telefono batek.



Gure proiektuaren beharra desagertuko balitz lorpen baten antzera hartuko genuke, izan ere, erasoak gutxitzearen adierazgarri litzateke. Hala ere, badakigu lan zaila dela hau, eta ez dagoela gure esku bakarrik, hau da, seguru aski ez dugu biziko zerbitzu honen desagerpena, baina, behintzat, gizarte hobe batera heltzeko hazi berri bat landatuko dugu.